

BISITA ETA DASTATZE GIDATUAK EGITEKO AUKERA

Sagardoa Routek hainbat aukera eskaintzen ditu bisita eta dastatze gidatuak egiteko Gipuzkoako sagardotegietan. Usurbilen Saizar da aukera eskaintzen duen bakarra. Atzerritarrak “dezente” hurbiltzen dira bi aukera hauek probatzera: “Amerikako Estatu Batuak eta Erresuma Batuko bisitariak ditugu gehienbat. Baita, asiarrak, europarrak eta bisitari nazionalak ere”.

Bisita gidatuak

Bisita gidatuak Saizar sagardotegia goitik behera ezagutzeko aukera emateaz gain, sagardoa egiteko prozesua ere aztertze aukera ematen dute. Sagasti artean galdu,

baserriko dolareak ikusi, prozesua nola egiten den azertu eta upategietako bidea egin daiteke. Dastatze txiki bat ere egin daiteke pintxo eder bat janez.

Dastatze gidatua eta otordua

Sagardoen arteko aldeak eta elaborazio prozesuan dituzten aldeak ezagutzeko bidea ematen dute bi proposamenek. “Dastatze gidatua sagardoak dastatzean zentratzen da nagusiki eta bisita gidatua baino laburragoa izaten da”, jakinarazi digute Saizarreko arduradunek.

Ondoren, sagardotegiko menuaz goatzeko aukera paregabea ere izaten da bietan.



Dastatze gidatuaren ondoren, sagardotegi menuarekin goatzeko aukera izaten da.

Ondo para Sagardo Egunean

JUANTXO
BURDINDEGIA



Zubiaurrenea 8 • ☎ 943 370 008